

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jardunaldi batean eztabaidatuko dute derrigorrezko hezkuntzan ikasleek lortu behar dituzten gaitasun nagusiak

Saioa asteazken honetan, 15ean, izango da Nafarroako Eskola Kontseiluaren egoitzan, eta, aurrez izena emanaz gero edonor bertaratu ahal izango da.

Jueves, 09 de enero de 2014

[Nafarroako Eskola Kontseiluak](#) Foru Parlamentuarekin batera datorren asterako antolatutako jardunaldia da eta, bertan, ikasleek derrigorrezko hezkuntzan lortu beharreko gaitasun nagusiei buruz eztabaidatuko da. Saioa datorren urtarrilaren 15ean, asteazkena, izango da 17:00etatik aurrera, erakundeak Iruñeko Ezpeleta Jauregian dituen instalazio berrietan.

"Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak" jardunaldien saio berrira joan nahi dutenek [izena eman](#) beharko dute aurrez hezkuntza-erakundearen webgunean edo 848 428 786 telefono-zenbakira deituta (9:00etatik 14:00etara).

Gaitasunak bizitza errealeko egoerei irtenbideak aurkitzeko ezagutza baliatzeko jakintza direla esan liteke. Europar Batasunak oinarrizko zortzi gaitasun ditu zehaztuta: hizkuntza, matematika, mundu fisikoaren ezagutza eta harekiko elkarreragina, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, gizartea, kultura, ikasten ikasteko gaitasuna, eta autonomia eta gauzak norberaren ekimenean burutzea.

Jardunaldiaren helburua kontzeptu hori sakontzea da, eskoletako erdua aldatzen ari baita. Kontzeptu horren arabera, testuinguru zehatz baten ezagutzari lehentasun handiagoa ematen zaio oroimenezko jakituriaren ohiturari baino.

"Oinarrizko gaitasunak" izenburua duen saioaren hasieran, Javier Valle Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasleak Europako gaitasunen esparrua azalduko du.

Ondoren, Eskola Kontseiluaren mahai-ingurua egingo da, Pedro Rasconek moderatuta, bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunen inguruan eztabaidatzeko. Bertan, Florencio Luengo Hezkuntza Ministerioko COMBAS proiektuko oinarrizko gaitasunen aholkulari pedagogikoak, Isabel Beltrán Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Ataleko buruak, Camino Bueno Zizur BHIko zuzendariak eta Jesús María Ezponda Miravalles-El Redín ikastetxeko zuzendariak parte hartuko dute.